



LURRA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKO GARBITZEKO LEGE- AURREPROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA, XEDAPEN OROKORRAK EGITEKO MODUARI BURUZKO 8/2003 LEGEAREN 10.3 ARTIKULU-ZATIAK ARAUTZEN DUENAREN ARABERA

1.- AURREKARIEN DESKRIBAPENA ETA XEDAPENA BEHARREZKOA DELA ERAKUSTEN DUTEN ARRAZOI EKONOMIKOAK

Lurzorua ingurunearen funtsezko osagaietako bat da, eta, bizia ez ezik, giza jarduera gehienak ere gertatzen diren Lurraren azalaren zati a da; gainera, lehorraren, airearen eta uraren arteko interfazea da, eta horrek natura-funtzioak bezala erabilera-funtzioak ere betetzeko ahalmena ematen dio. Beharrezkoa da mekanismoak izatea, lurzoruaren erabilerek garapen jasangarria izan dezaten, natura-baliabide urri eta ezin berriztatuzko hori arriskuan jarri gabe, nahiz eta gero eta gehiago jasaten duen gizakien jardunaren eragina.

Esparru horretan, eta EAEko lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektuaren zioen azalpenak dioen bezala (aurrerantzean, “Aurreproiektua” esangodiogu hari), lurraren babes-esparruan aurrerapauso handiak egin arren, agerian gelditutako kontu batzuk direla eta beharrezkoa da kutsatutako lurren arau-esparrua aldatzea; esparru hori, orain arte, lurra ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legearen (aurrerantzean, “1/2005 Legea”), baina aipatutako aurreproiektuak ordeztuko du. Arau horrek, zioen azalpenean adierazi bezala, helburu hau zuen: “*lurzoruetan eraldaketa berriak agertzeari aurrea hartzea, kasurik presakoenei konponbidea ematea, eta lurzoru kutsatu modura jarauntsitako pasiboa konpontzeko planak epe ertain eta luzera egitea.*”.

Arau-aurrekariak

Lehentasunezko helburu horiek lortzeko, 1/2005 Legeak zenbait betebeharrak prestatu zituen lurren kutsatze- eta konpontze-zikloan esku har zezaketen subjektuei lotuta. Eta arauaren eragin ekonomikoa kuantifikatzeko, 1/2005 Legearen memoria ekonomikoak¹ garrantzi ekonomikoko betebeharrak batzuk identifikatu zituen, honela labur daitezkeenak:

1. Lurraren egoerari buruzko txostenak egitea.

1/2005 Legearen 6. artikulua lurraren kalitateari buruzko txostenak egitera behartzen zituen lurra kutsa zezaketen jardueren titularrak (jarduerak arauaren II. eranskinean zerrendatuta daude), gida teknikoetan geroago ezarritako prozeduraren arabera².

2. Prebentzio-neurriak ezartzea.

Arauaren 7. artikuluari jarraikiz, lurra kutsa zezaketen jardueren titularrek ingurumen-organok lurra prebenitzeko eta defendatzeko ezartzen zizkien neurriak hartu behar zituzten. Neurri horiek, bestalde, ingurumen-baimen bateratuaren barruan sartu behar ziren.

¹ Izen hau duen dokumentua: “Lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoa” (2004ko urtarrila).

² Ikus: “Lurraren egoerari buruzko atariko txostena egiteko gida”, (Eusko Jaurlaritza, 2007).

3. Lurraren kutsaduraren kontrol- eta jarraipen-neurri en garapena.

1/2005 legearen 8. artikulua ingurumen-organoak ka suan-kasuan ezarritako kutsaduraren kontrol- eta jarraipen-neurriak betetzeko betebeharrak ezartzen ziren lurra kutsa zezaketen jardueren titularrei, bai eta instalazio horiek kokatuta zeuden lurraren edukizailerik ere.

4. Lurraren kalitatearen gaineko miaketazko azterketak eta azterketa xehatuak egitea.

1/2005 Legeak lurraren kalitatearen miaketazko ebaluazioa eta ebaluazio xehatu egiteko sistema oso bat sartu zuen; zehazki, 11. artikulutik 16. artikulura bitartekoetan. Txosten horien bidez, lurra zeuden kutsadura-mailak identifikatzea aurreikusten zuen arauak, bai eta maila horiei lotu tako arriskuak zein ziren jakitea ere. Miaketazko azterketaren eta azterketa xehatuaren artean desberdintasun nagusi bat dago: azken horretan, lurpearen laginen azterketak eta ebaluazioak egiteaz gain, arrisku-azterketa bat jasotzen da, kokapenaren poluzio-mailak pertsonen osasunarentzat edo ingurumenarentzat ezin onartuzko arriskua diren jakiteko.

1/2005 Legeak xedatzen zuen bezala, miaketazko azterketa egin beharrekoa zen beti, lurra kutsadura-zantzuak egonez gero, kutsadura horren presentzia baieستeko edo baztertzeko. Bestalde, 1/2005 Legearen 14. artikulua esaten zuen azterketa xehatu egin behar zela beti, miaketazko azterketan egindako analisien emaitzek aipatu arauaren II. eranskinean zehaztutako B ebaluazio-ban adierazgarriak gaituzten bazituzten.

5. Eraldatutako eta kutsatutako lurra berreskuratzeko neurriak.

1/2005 Legearen 27. artikuluan eta hurrengoetan zen baita neurri jasotzen ziren, lurra berreskuratzera behartuta zeudenek hartu beharrekoa, lurra eraldatuta edo kutsatuta zegoelako egiazko adierazpena gertatu ondoren.

Lurraren kalitatearen gaineko miaketazko azterketek in eta xehatuekin gertatzen zen bezala, berreskuratzeko neurri horiek 1/2005 Legearen lurraren kalitatearen gainean araututako adierazpen-prozedura txertatzen dira.

2. LURRA KUTSATZEA SAIHESTU ETA KUTSATUTAKO GARBITZEKO LEGE-AURREPROIEKTUAREN BERRITASUNAK

2.1.- Aurreproiektuaren kontzeptuzko arau-berritasunak

Aurreproiektuak EAEn kutsatuta dauden lurren problematikari buruzko ikuspegi berri bat jasotzen du. Ikuspegi berri hori 1/2005 Legearen 8. urteko ibilbidean metatutako esperientziari esker mamitu da.

Aurreproiektuaren asmoa da **Administrazioaren esku-hartzea murriztea kutsatuta egon daitezkeen kokalekuetako lehengoratzeko-prozeduretan, hala nola prozedura horiei lotutako izapideak sinplifikatzea**. Eta ingurumen-babesa garrantzi handieneko egoeretan mugatzea. Aurreproiektuaren zioen azalpenak honela laburtzen du:

“Legea parametro bikoitz baten arabera aldatzean datza xedea: batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztea, sinplifikazio administratiboa, eta, beharrezkoa ez denean, tutoretzarik ez izatearen printzipioa; eta bestetik, ingurumen-estandarrek hertsiki mantentzea, aldaketak estandarrek inola ere urritu gabe”.

Administrazioaren esku-hartzea murrizteari eta haren jarduketaz azkartzeari dagokienez, aurreproiektuak honako hauek jasotzea aldeztu du: (i) lurra erabiltzeko egokia delako adierazpen-prozedura (lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura sinplifikatua), eta (ii) lurraren erabileraren kalitatearen gaineko adierazpenetik salbuesteko prozedura; bata zein bestea aurrerago azalduko dira.

Aurreproiektuaren II. eranskinak jarduerak kutsatzeko duten ahalmenaren arabera **sailkatzen ditu**. Sailkapen horren arabera, arauak beste kontrol-be tebehar batzuk ezartzen ditu, edo lurraren gaineko kalitatearen adierazpene tik salbuesteko prozeduretan parte hartzetik kanpo uzten du jarduera.

Bestalde, aurreproiektuak **bateratu egiten du kutsatutako lurri buruzko euskal araudia eta lege hau: 22/2011 Legea, ekainaren 28koa, hondakinei eta kutsatutako lurri buruzkoa**; bereziki kutsatutako edo eraldatutako lurrak berres kuratzeari dagokionez. Zehazki, besteak beste, honako kontu honetan: *kutsatutako eta eraldatutako lurrak berreskuratzeko neurriak hartzera behartuta dauden pertsonak zehaztea*.

Gainera, **egitura aldatu** egiten zaio legerari, arautzen dituen alderdietan si stematika hobe a lortzeko: lurraren kalitate-arloko tresnak eta prozedurak, betebeharrak, lurren arloko politikaren tresnak eta zehapen-araubidea”

Azkenik, **Administrazioak zerbitzu jakin batzuk emateagatik tasak** sartzen ditu aurreproiektuak lurraren kutsaduraren prebentzio- eta zuzentze-arloan. Neurri horren garrantzi ekonomikoa gorabehera -hurrengo atalean a ztertuko da-, kontua da tasa horiek ezartzearen helburua administrazio-kostuak izapideekin -ingurumen-organoak esku hartzeko arrazoi direnekin- zerikusia duten eragileei jasana raztea dela, beste administrazio-esparru batzuetako ohiko jokaerarekin bat etorriz.

2.2.- Aurreproiektuak ekarritako garrantzi ekonomikoko berritasunak

Aurreproiektuak zerikusia duten eragileek bete beha rreko eginbide berri batzuk jasotzen ditu. Ondoren, eragin ekonomikoa (positiboa edo negatiboa) dutenak aipatzen dira.

A. Lurraren egoerari buruzko txostenak aldiari behin aurkeztea, kutsaduraren bateratutako prebentzio- eta kontrol-araudia bete behar duten instalazioetarako

Betebehar edo eginbide berri hau industria-emisioei buruzko azaroaren 24ko 2010/75/EB Direktibaren 16.2 artikulua-zatia egokitzearen ondorioa da, eta, horregatik, ez litzateke hartu behar aurreproiektutik ondorioztatutako betebehar berri moduan; hala ere, dauzkan ondorioen ebaluazioa jasotzen da ondoren.

Aurreproiektuaren 17. artikulua 2. zatiak dio ku tsaduraren bateratutako prebentzio- eta kontrol-araudia bete behar duten instalazioek lurraren egoerari buruzko txosten eguneratua berriz aurkeztu behar dutela, gutxienez 5 urtean be hin.

Aldiari behingo txosten horiek berriz egiteak kostu bat ekar dezake berekin kutsaduraren bateratutako prebentzio- eta kontrol-araudia bete behar duten jarduerentzat.

Txosten horiek eguneratzeak -inoiz ere ez da behar ezkoa izango haien *ex novo* idazketa egitea- gehien kutsa dezaketen instalazioen kontrol handiagoa ekarriko du, eta, horri esker, azkarrago hartu ahal izango dira kontrol- eta prebentzio-neurri egokiak.

B. Lurzorua erabiltzeko egokia delako adierazpen-prozedura bat ezartzea

Aurreproiektuaren 25., 36. eta 37. artikuluetan lurraren kalitatearen prozedura sinplifikatu bat arautzen da. Prozedura horri esker, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren titularrek, industria-lur batean kokatutako kutsatze-ahalmen er taineko establezimendu bat jarri, handitu edo itxi nahi badute, lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura laburtzeko aukera izango dute.

Jarduera horien titularrek, prozedura horretara biltzeko, baimendutako entitate batek egiaztatutako egoera-txosten bat igorri beharko dut e EAEko ingurumen-organora.

A priori, izapideak sinplifikatze horrek orain arte lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura izapidetzetik ondorioztatzen zen **kostuan aurrezte** ekarriko du (aurrezki **geroago kuantifikatzen da**). Aipatu aurrezki hori kutsatzeko ahalmen ertaineko kokaguneen ezarpen,

handitze edo behin betiko itxierarako gerta daiteke, eta haiek, horrelakoetan, ez lukete miaketazko azterketarik egin behar izango.

C. Salbuespen-kasuen sarrera lurraren kalitatearen gaineko adierazpenerako prozeduretan

Aurreproiektuak sustatzen duen izapideen sinplifika zioarekin jarraituta, haren 26. artikuluan, lurraren kalitatearen gaineko adierazpenetik salbuesteko prozedura bat arautzen da, espezifikoa eta, ingurumenaren ikuspuntutik, munta gutxikoak diren jarduerentzat.

Hauek dira jardura horiek:

- Industria-erabilera baten garapena, lurra kutsa dezakeen jardura baten ezarpena, handitzea edo itxiera besterik ez gertatuta, lurra izan duen jardura kutsatzeko ahalmen gutxiko jardura moduan sailkatuta dagoena;
- Kutsa dezakeen jardura bat duen edo izan duen koka gune baten zati bat okupatzea, zerbitzuak ezartzeko lurra mugitzeko;
- Kutsa dezakeen jardura bat handitzea partzelaren mugen barruan;
- Lurra kutsa dezakeen jardura bat partzialki uztea eta
- Lurraren kalitatearen gaineko aurretiazko adierazpen-ebazpena dagoenean, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren ezarpen-, handitze- edo erabateko uztekasuan.

Salbuespen hori orain arte lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura izapidetzetik ondorioztatzen zen kostuan aurrezte da (aurrezkoa geroago kuantifikatzen da).

D. Berme ekonomikoak (abalak, fidantzak) ezartzeko aukera, lurraren kalitate-adierazpenean ezarritako neurriak beteko direla ziurtatzeko

Aurreproiektuaren 34.2 artikuluzatiak berreskuratzera behartutako subjektuei abalak, fidantzak edo beste finantza-berme batzuk eratzera ezartzeko aukera jasotzen du, lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-ebazpenean ezarritako neurriak beteko dituztela ziurtatzeko.

Dudarik gabekoa bada ere neurri horiek izan dezaketela eragin ekonomikoa, hori ezin da kalkulatu kontuan hartuta arauaren arabera finantza-berme horien ezarpena hautazkoa dela. Gainera, ezin da jakin ingurumen-administrazioak nola erabiliko duen aukera hori, aurreko araudian ez baitzegoen jasota.

E. Gehienez ere berreskuratzeko neurri guztien kostu kalkulatuaren % 10eko zenbatekoko isun hertsatzaileak ezartzeko aukera

Era berean, aurreproiektuaren 41. artikuluan 8. zatia aukera ematen du EAEko ingurumen-administrazioak ezarritako berreskuratzeko neurrien zenbatekoaren % 10erainoko isun hertsatzaileak ezartzeko, berreskuratzeko neurriak gaituzteraz behartuta daudenek hori egiten ez dutenean.

Neurri berri horrek, kuantitatiboki, izango du, bai, eragin ekonomikoa. Hala ere, ezin da jakin, ez eta gutxi gorabehera ere, nola erabiliko duen ingurumen-administrazioak aukerako ahalmen hori; horregatik, funsgabea litzateke horrekin edozein kalkulua egitea.

F. Tasak ezartzea autonomia-erkidegoko Administrazio Orokorrek lurraren kutsaduraren prebentzio- eta zuzentze-esparruan zerbitzuak emateagatik

Aurreproiektuaren 51. artikulutik 56. artikulura bitartekoetan, zenbait tasa jasotzen dira, Administrazioak arauan xedatuta dauden prozedurak kudeatzeagatik, eta tasa horiek dira eragin ekonomikoa izan dezakeen azken berritasuna.

Tasa horiek sartzea beharrezkoa da, 1/2005 Legearen zazpi urteen ondoren komeni delako eskatzen dutenei jasanaraztea ingurumen-organoaren administrazio-arloko esku-hartzearen kostuak. Tasa horiek sartzean, beraz, Administrazioaren beste esparru batzuetan erabilitako ereduari jarraitzen zaio.

3.- LEGE-PROIEKTUA INDARREAN SARTZEAK ERAGINGO DITUEN AURREKONTU-GASTU ETA -SARRERAK KUANTIFIKATZEA

Izapidetzen ari den lege indarrean jartzearen ondo riezko aurrekontu-gastuak bat datoz, funtsean, lege-aurreproiektuan aurreikusten diren eginbide guztiak gauzatzeko behar diren langileen kostuekin.

Alde horretatik, geroago lurra ez kutsatzeko eta ku tsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea izango zen lege-aurreproiektuarekin ba tera egindako memoriaren arabera, giza baliabideen beharrari zegokionez, 13 pertsona sartu behar ziren Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzan, arau hartatik ondorioztatutako aurre ikuspen guztiei aurre egiteko. Dokumentu honen eranskinean dokumentu haren laburpena jasotze n da. Zehazki, 13 lanpostu berri hauek eskatzen ziren: 1 aholkulari juridiko; 4 goi-mailako teknikari; 4 erdi-mailako teknikari; 2 LH; 1 administrari; 1 administrari laguntzaile.

Langile-behar horiek kuantifikatzeko, honako hauek gauzatzeko behar ziren langileei buruzko aurreikuspenak kontuan hartu ziren: atariko egoera-txostenak izapidetzea; ikerketa-txostenak; berreskuratze-proiektuak; eta prebentzio -, defentsa- nahiz kontrol- eta jarraipen-neurriak.

Orduz geroztik, egoera hau da: araua 2005. urtearen hasieran onartu zen; lehen bi teknikariak 2007an hasi ziren; eta, geroago -2008an-, beste bi teknikari sartu ziren. Era berean, taldeak abokatu bat dauka, Ingurumenaren Plangintzaren Zuzendaritzari atxikita; aholkulari-lanak egiten ditu.

Ez da langile nahikorik egon otsailaren 4ko 1/2005 Legea izapidetzean aurreikusitako langile-hornidurari buruzko aurreikuspenak ez gauzatzearen ondorioz, eta horrek Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza, ekitaldi guztietan izenpetzen den eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan jasotzen den gomendioaren bidez, IHOBEn atxikitako teknikarien lankidetzara izatera behartu du. Kutsatutako lurren atalean, gomendio horien azken urteetako kostua hau izan da:

2013	264.385 €.
2012	1.670.125 €.
2011	1.398.000 €.
2010	585.914 €.

Gomendioaren xede diren eginkizunetarako, IHOBEn langileen artean, lau teknikari-hornidura daude, eta administrari-hornidura bat, ku tsatutako lurrei lotutako lanak egiten dituzten.

Gainera, laguntza tekniko espezializatua jasotzeko kontratuak egiten ari dira, luraren kalitateari buruzko ikerketetako ebaluazio-lanetan lagungarri gerta dadin. Kontratazio horien urteko batez besteko kostua 320.000 euro izan da 2008-2012 aldian.

Egoera horretan, teknikariek egiten duten ahalegina gorabehera, ezin zaie behar bezala erantzun epearen barruan prozedura hasteko kontsulta eta eskaera guztiei. Ingurumen-organoan aurkeztzen diren atariko egoera-txostenen ebaluazioa ere ezin da egin, eta horren ondorioz, bai eta espediente horien berezko konplexutasun teknikoaren ondorioz ere, hasitako prozeduren izapidetzea eta gaiari buruzko erabakiak berandutu egiten dira arauan aurreikusi baino gehiago. Arauak eskatutako beste zeregin batzuetan ere handiak dira atzerapenak; besteak beste, inbentarioa eguneratzea n, erakundeak egiaztatu edo baimentzean, kutsatutako lurren planak prestatzean eta planen jarraipena egitean.

Izapidetzen ari den lege-aurreproiektuak egoera hori nolabait arinduko du espedienteen izapideak egitean, Administrazioaren esku-hartzea azkartuz, lurraren kalitate-arloko prozedurak sinplifikatuz, egokitasun-prozedura bat jasoz, zeina, kasu jakin batzuetan, lurraren kalitate-prozedura ordeztuko baitu, eta kasu jakin batzuetan lurraren kalitate-arloko prozedurak izapidetzetik salbuesteko aukera emanaz.

Aurrerago zehaztasunez azalduko den bezala, 2013 eta 2040 artean, lege-aurreproiektuak aurreikusitako jarduketa-kasuetakoren batean 7.409 kokagune egongo direla kalkulatu da. Haietatik, %40 lurraren kalitatearen ikerketaren xede izango da; hau da, 7.409 kokaguneeetatik 2.964 ikertu egingo dira. Egoera berri hori dela eta, aurreztu egingo da lurraren kalitateari buruzko ikerketen ebaluazio-txostenak egiten laguntzeko kontratatzen diren laguntza tekniko espezializatuei lotutako gastuak. Orain arte emandako datuen arabera, urtero 192.000 euro aurreztuko dira.

Hala ere, aurreikuspen sinplifikatzaile horiek, beren bakarrean, ez dira aski giza baliabideen kopuru urria arintzeko. Alde horretatik, esan behar da lege-aurreproiektuak zenbait xedapen jasotzen dituela lurraren kalitate-esparruan, lurraren kalitate-prozedurak berak izapidetzeari gehituta, eta haien kudeaketak ere behar adina langile izatearen premia duela. Hala, hauek aipa daitezke:

- Lurraren egoerari buruzko txostenak
- Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioa
- Euskal Autonomia Erkidegoko lurren plana
- Lurzorua kalitatearen administrazio-erregistroa
- Lurzorua ikertzeko eta berreskuratzeko baimendutako entitateak
- Ikusapena eta zaintza
- Tasen sistema lurraren kalitate-arloan
- Zehapen-araubidea

Kontu horietako batzuk ez dira orain izapidetzen ari den legearen berritasun, baina kontuan hartu behar da ez zirela aintzat hartu 1/2005 Legea izapidetzean langile-beharrei buruz egin zen azterketa sakonean, hartan, erantsitako eranskian adierazten den bezala, ez zirelako aintzat hartu inbentarioa kudeatzeko eta egiteko, kutsatutako lurren plana prestatzeko eta haren jarraipena egiteko eta baimendutako erakundeak kudeatzeko prozedurei lotutako langile-beharrak.

Ondorioz, pentsatzen da funtsean indarrean jarraitzen dutela aurreko arauarekin batera egindako memoria ekonomikoan aipatutako langile-beharrek, testu berrian lurraren kalitate-prozedurak berak sinplifikatzen badira ere, legeak aurreikusten dituen gainerako administrazio-jarduketek lurra kutsa dezaketen jarduerak eta instalazioak dituzten lurren inbentarioak, kutsatutako lurren planak, baimendutako erakundeek, bai eta, orain, tasen kudeaketak ere inplizituki dakartzatelako berekin oraindik bete ez diren langile-behar batzuk.

Haren arabera, lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedurak izapidetzeko ardura duen zerbitzuan oraindik hartan sartu ez diren zortzi pertsonak hartu beharko liriateke; hau da, goi-mailako bi teknikari, erdi-mailako bi teknikari, bi LH, administrari bat eta administrari laguntzaile bat. Aurreproiektu berriarekin egoera eguneratuta, pentsatzen da hark dakarren izapide-sinplifikazioak arrazoitu egiten duela zergatik ez den beharrezkoa aipatutako memoria ekonomikoan eskatutako pertsona bat (zehazki, LHkoa). Sortu beharrekotzat jotzen diren lanpostu berri horiek guztira kostu hau izango lukete: HIRUREHUN HOGEITA ZAZPI MILA, BOSTEHUN ETA BERROGEITA HEMEZORTZI EURO (327.558€)³.

³ Kalkuluak taldeko oinarritzko mailak kontuan hartuta eta gizarte-segurantzako kostuak barne sartuta egin dira.

Lege-aurreproiektua indarrean jartzeak berekin daka rtzan diru-sarrerei dagokienez, esan behar da ingurumen-organoak lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko esparruan zerbitzu jakin batzuk emateari lotutako tasa batzuk sartzen dituela lege-aurreproiektuak. Zerga-sisteman duen eraginari eta memoria ekonomiko honetako aplikatzekoa den zuzenbide publiko edo pribatuko gainerako sarrerei buruzko atalean, aipatu tasa horiek aplikatzearen ondoriozko sarrerak zehazten dira.

4.- AURREKONTUKO GASTUEN FINANTZAKETA ETA AURREKONTUTIK EZ DATOZEN GASTUEN FINANTZAKETA

Gastuaren finantzaketa Ingurumena Babesteko Programan kokatuta dago (4421).

2014ko ekitaldiko aurrekontuetan, 21. zerbitzuan (Ingurumen Administrazioa), aurrekontu aplikazio hauek jasotzen dira

- 14.0.1.09.21.0000.1.232.01.44210.000/F aurrekontu-a aplikazioan: 75.000 € neurri batean kutsatutako lurren arloko jarduketak egiteko ardura izango duten zerbitzu profesional independenteak kontratatzeko.
- 14.0.1.09.21.0000.1.238.99.44210.014/J aurrekontu-a aplikazioetan, 150.000 € jasotzen dira kutsatutako lurretan jarduteko (hondakindegiko publikoak), aurreko urteetako konprometitutako kreditu moduan.
- 14.0.1.09.21.0000.1.238.99.44210.015/B aurrekontu-a aplikazioan, 120.000 € jasotzen dira, hondakin arriskutsuen eta kutsatutako lurren arloko jarduketa subsidiarioetarako.

5.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN GAIA ETAN ERAGITEN DUTEN XEDAPEN-ALDERDIAK ZEHAZTEA

EAEko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 1.2 artikuluz zehazten duenaren arabera, honako hauek dira EAEko Ogasun Nagusiaren berezko gaiak:

- a) Ondarearen erregimena.
- b) Aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura.
- c) Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerak bete behar duen kontrol- eta kontabilitate-sistema.
- d) Kontratazio-araubidea.
- e) Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren erregimena.
- f) Bere tributuoak eta bestelako diru-sarrerak arautzea, publiko nahiz pribatuak.
- g) Zorpetzeko erregimena.
- h) Bermeak emateko erregimena.
- i) Laguntza eta diru-laguntzetarako erregimen orokorra, lege honetan araututa dagoena.
- j) Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Nagusiaren gainerako gaien inguruan dituen eskumenen erregimena.
- k) Artikulu horretako 1. paragrafoan aipatutako eskubide eta betebeharrekin zerikusia duen beste edozein (*Euskal Autonomia Erkidegoa titularra den eta izaera ekonomikoa duen beste edozein*).

Aurreproiektuan proposatutako arautzeak alderdiotako bitan baino ez du eragina, ondoren aztertzen denaren arabera:

5.1.- Eragina zerga-sisteman eta aplikatzekoa den zuzenbide publikoko edo pribatuko gainerako diru-sarreretan

EAEko Administrazioak honako ingurumen-zerbitzu hauek emateari lotutako zenbait tasa sartzen ditu aurreproiektuak:

1. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak ebaluatze ko txostenak egitea
2. Hondeaketa baimentzeko ebazpenak ematea

3. Lurzoruaren kalitatearen gaineko adierazpenak emate a
4. Salbuesteko ebazpenak ematea
5. Lurzorua erabiltzeko egokia delako adierazpena emate a
6. Lurzorua berreskuratuta dagoela egiaztatzeko ebazpena ematea
7. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatea baimentzeko aldaketa
8. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatea baimentzeko aldaketa
9. Kontsulta lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroan

Aurreproiektuak sartutako tasen aplikazioari lotuta ko jarduketan kopurua kalkulatu da.

Aldez aurretik, esan behar da 2013-2040 aldian, kal kuluaren arabera, 7.409 kokagune egongo direla lege-aurreproiektuak jasotzen dituen eta ber ekin EAEko Administrazioak ingurumen-zerbitzuak ematea dakarten kasuetako batean.

Eta hala, hau pentsatu da:

- **Lurraren kalitateari buruzko ikerketak ebaluatzeko txostenak**
 - Kalkuluaren arabera, kokagune guztien % 40an lurraren kalitatea ikertuko da. Hau da, 2.964tan, guztiak 7.409 izanik. Miaketazko 2.964 az terketa egingo dira. % 40 horretatik, % 24an azterketa xehatuak egin beharko dira (711 az terketa xehatu), eta % 24 horretan, berriz, % 50ean berreskurapenak egin beharko dira, bai eta, haiekin batera, gelditzen den lurra ezaugarritzeko txostenak ere (355 kokagune). Txosten horien guztien berrikuspenari kasuan kasuko tasak lotuko zaizkio. Kalkulua egiteko, txosten bakoitzeko berrikuspen bat egitea aski izango dela pentsatu da . Ez da pentsatu tasak kobratzea kontrol- eta jarraipen-lanen emaitzen ebaluazioari.
 - Guztira, **4.385** ebaluazio-txosten egitea kalkulatu da (2.964 miaketazko azterketa, 711 azterketa xehatu, 355 oneratzeko-txosten eta gelditutako lurra ezaugarritzeko 355 txosten).

- **Hondeaketa baimentzeko ebazpenak ematea**
 - Azterketa xehatua egingo zaien kokaguneen % 50 hondeatuko dela kalkulatu da, eta, beraz, aginduzko baimena beharrezkoa izango da haie tan, eta tasa hau sortuko da.
 - Hala, 2013 eta 2040 artean, hondeatzeko 355 baimen eskatu beharko direla kalkulatu da.
- **Lurzoruaren kalitatearen gaineko adierazpenak ematea**
 - Miaketazko txostenen ebaluazioa egin beharko dute kokaguneen kopuru berak luraren erabilerearen kalitatearen adierazpena eskatu beharko duela kalkulatu da.
 - Aurrekoaren arabera, 2013 eta 2040 artean, luraren kalitatearen 2.964 adierazpen emango dira guztira.
- **Salbuesteko ebazpenak ematea**
 - Kalkuluen arabera, kokagune guztien % 20k salbuesteko kasuetakoren bati heldu ahal izango dio; hau da, 1.481 kokagunek.
 - Pentsatzen da 1.481 kokagune horietatik, % 50ean soilik izango dela beharrezkoa EAeko Administrazioak luraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduretatik salbuesteko berariazko erabakia hartzea; hau da, 740 kokaguneta n.
 - Aurrekoaren arabera, 2013 eta 2040 artean, salbuesteko 740 ebazpen emango dira guztira.
- **Lurzorua erabiltzeko egokia delako adierazpena**
 - Kalkuluen arabera, kokagune guztien % 40ean luraren erabilera-egokitasunari buruzko adierazpen-prozedura egingo da. Hau da, 2.964 kokagunetan, guztiak 7.409 izanik.
 - Aurrekoa oinarri hartuta, 2013 eta 2040 artean, guztira, luraren erabilera-egokitasunari buruzko 2.964 ebazpen emango direla kalkulatu da.
- **Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatea baimentzeko aldaketa**
 - Luraren kalitateaz ikertzeko eta hura berreskuratzeko baimena duten erakundeek zerrendaren arabera (zerrenda Ingurumen Sailak egin zuen, eta 2012ko apirilaren eguneratu zuten)⁴, gaur egun baimendutako 41 erakundek lan egiten dute Euskadin.
 - Hala, baimendutako erakundeek kopuruan orain arte izan den handitze-erritmoaren arabera, eta kontuan hartuta merkatuaren aukerak eta egungo egoera ekonomikoa, 2013 eta 2040 artean guztira 20 erakunde berri baimenduko direla kalkulatu da.
- **Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatea baimentzeko aldaketa**
 - 2013 eta 2040 artean, baimendutako 100 erakundek baimena egokitu edo aldatu beharko dutela kalkulatu da.

⁴ Ikus edukia hurrengo esteka honetan:

http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r497932/es/c_ontenidos/informacion/suelos_contaminados/els_9995/adjuntos/entidades.pdf

- **Kontsulta lurzoruaren kalitatearen administrazio-erregistroan**
 - Egun, urtero **550-600** kontsulta jasotzen dira, guztira, Lurraren Kalitatearen Administrazio Erregistroan.
 - Kalkulua egiteko neurrizko oinarri moduan urtean 550 kontsulta jasotzen direla emanez gero, 2013tik 2040ra bitarteko epean guztira **14.850** kontsulta jasoko dira.

Zergapeko egitate bakoitzari dagozkion kuotak hartu dira aurreko jarduketei lotutako unitateko kostu moduan. Aurreko jarduketei lotutako kuotak taula honetan jasotzen dira:

ZERGAPEKO EGITATEA	TASA
• Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak baloratze ko txostenak egitea	150 €
• Hondeaketa baimentzeko ebazpenak ematea	200 €.
• Lurzoruaren kalitate -adierazpenak egitea	200 €.
• Salbuesteko ebazpenak ematea	100 €.
• Lurzorua erabiltzeko egokia delako adierazpena egiteko ebazpenak ematea	150 €.
• Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatearen baimentzeko ebazpena	400 €.
• Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatearen baimen-aldaketari buruzko ebazpena	100 €.
• Administrazio-erregistroko kontsultari erantzutea .	50 €.

5. taula. Administrazio-zerbitzuak emateagatik tasak sartzeko ari lotutako unitateko kostuak.

Aurreproiektuak sartzeko dituen tasen aplikazioaren ondoriozko eragin ekonomikoa honako hauek biderkatuz lortzen da: prozedura bakoitzari lotutako jarduketaren kopurua eta tasa bakoitzerako erabakitako kuota. Eta hala, eragin ekonomikoa hurrengo taulan jasotzen da modu analitikoan, tasen arabera banakatuta:

ZERGAPEKO EGITATEA	2013 ETA 2040 ARTEAN AURREIKUSITAKO JARDUEREN KOPURUA	TASA	KOSTUA (€)
1. Lurzoruaren kalitateari buruzko ikerketak baloratzeko txostenak egitea	4.385	150 €.	657.750
2. Hondeaketa baimentzeko ebazpenak ematea	355	200 €.	71.000
3. Lurzoruaren kalitate -adierazpenak egitea	2.964	200 €.	592.800
4. Salbuesteko ebazpenak ematea	740	100 €.	74.000
5. Lurzorua erabiltzeko egokia delako adierazpena egiteko ebazpenak ematea	2.964	150 €.	444.600
6. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatearen baimentzeko ebazpena	20	400 €.	8.000
7. Lurzoruaren kalitatea ikertzeko eta berreskuratzeko entitatearen baimen-aldaketari buruzko ebazpena	100	100 €.	10.000

ZERGAPEKO EGITATEA	2013 ETA 2040 ARTEAN AURREIKUSITAKO JARDUEREN KOPURUA	TASA	KOSTUA (€)
8. Administrazio-erregistroko kontsultari erantzutea.	14.850	50 €.	742.500
TASAK GUZTIRA			2.600.650

6. taula. Administrazio-zerbitzuak emateagatik tasak sartze ari lotutako eragin ekonomikoa .

Hala, Euskadin, Administrazioak lurren esparruan in gurumen-zerbitzuak emateagatik sortuko diren eta Aurreproiektuan zehaztuta dauden tasei lo tutako eragin ekonomikoa hau da: **2.600.650 €**, 2013 eta 2040 arteko aldirako⁵.

Aurrekoaren urteko eragin ekonomikoa **96.320 €/urte da gutxi gorabehera**.

Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-ehuna ren ezaugarri bereziak direla eta, kontuan hartu beharko da tasa duten jarduketan erdi etan gutxi gorabehera hobari-motaren bat aplikatu ahal izango dela.

5.2.- Eragina indarrean dagoen diru-laguntzen eta laguntzen araubidean

Memoria honetako 6. zatian, aurreproiektuak diru-la guntzen eta laguntzen egungo araubidean zer eragin duen zehazten da, baina ez da aurreikusten indarreko arauditik ondorioztatzen ez den beste eraginik.

6.- PROPOSATUTAKO XEDAPENA SARTUTA DAGOEN AURREKONTU- ETA EKONOMIA-PROGRAMAREN DESKRIBAPENA

2012ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aur rekontu Orokorrekin batera (aurrekontu horiek abenduaren 23ko Euskal Autonomia Erkidegoko 6/2011 Legeak onartu zituen, eta 2013an luzatu ziren) egindako memorian, aurreikuspe n bat jasotzen zen lurra ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen berriku spenaz eta prozedurak eguneratutako esparru berrira egokitzeaz.

Aurreikuspen hori 4421 Programan (“Ingurumenaren ba besa”) jasotzen zen. 2011 “Ingurumen” Programa helburu estrategikoak lortzeko diseinatu da; adibidez, “Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea”. Hel buru hori lortzeko, gorago aipatutako berrikuspenaz gain, jarduketa hauek aurreikusten zi ren:

- 2012-2015eko Lur Kutsatuen Plana egitea, 1/2005 Leg ea aldatzera bultzatu zuten printzipioetan oinarrituta.
- hirigintza-baliorik ez duten eta eragina izaten ari diren titulartasun publikoko lurren kudeaketa sustatzea, abian jartzen diren ekimenei l aguntza ekonomikoa emanez, bai eta hondakindegri pribatuetan ere, hobeto jakiteko zein den haien eragina, eta, geroago, egon daitezkeen erantzukizunak eskatzeko.
- lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen ondoriozko espedienteak izapidetzeko eta kudeatzeko ekintzekin eta legea garatzeko ekimen guztiekin jarraitzea.
- aplikazio-irizpideak hobetzea eta sinplifikatzea, eta baimendutako erakundeei helaraztea.

⁵ Kontuan izan tasa horien aplikazioak diru-sarrera dakarrela EAeko Administrazioarentzat, eragin ekonomikoa izan arren gastu moduan lurraren kalitatearen adierazpen-prozedurak sustatzen dituztenentzat eta ingurumen-lankidetzarako erakunde guztientzat.

2014ko Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrekin batera egindako memorian, ez da berariaz jasotzen Legea berrikusteko aurreikuspen hori; izan ere, aurrekontu-memoriaren dokumentua egin zenean -2013ko ekaina-, pentsatu zen proiektuaren gobernu-izapidea 2013ko aurrekontu-ekitaldiaren barruan amaituta egongo zela.

Hala ere, aurrekontuen memoriak 5. helburu estrategiko moduan jasotzen du honako hau: “Ingurumen Administrazioa azkartzea eta sinplifikatzea, kontrol- eta ikuskapen-egintzen alde, haiek ikuskapen-programa espezifiko bidez indartu z.”

Helburu orokor horren barruan izango luke lekua otsailaren 4ko 1/2005 Legearen berrikuspenak, lurra kutsatzea saihestu eta kutsatu takoa garbitzeko lege berri bat ekarri baitu.

Bestalde, 2. helburu estrategikoaren barruan (Ingurumen-kalitatea hobetzea), jarduketako ildo hau jasotzen da: lkerketak eta jarduketak sostengatzea lurra kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten lur publikoetan.

7.-LAGUNTZAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Aurreproiektuaren VII. kapituluaren lurzoruen politikan herri-administrazioen ardura diren tresnak jasotzen dira, gai horretan haien jardueraren gidari diren printzipioak eraginkor bihurtzeko. Aipatutako tresnen artean, honako hauek daude: laguntza ekonomikoak (aurreproiektuaren 48. artikulua), legean aurreikusitako eginbideak bete daitezkeen sustatzeko; eta finantza publikoaren alorreko mekanismoak (aurreproiektuaren 49. artikulua). Nolanahi ere, esan behar da aipatu artikuluen edukia ez dela gaur egun indarrean dauden 1/2005 Legearen 37. eta 38. artikuluetan xedatutakoaren desberdina.

Bestalde, kontuan hartu behar da Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak diru-laguntzak emateko deialdi bat egiten duela urtero, garapen eta sangarriaren aldeko jarduerak egiten dituzten udalentzat, mankomunitateentzat, beste tokiko entitate batzuentzat, toki-erakunde autonomoentzat eta tokiko merkataritza-sozietateentzat.

Deialdi horren barruan, kutsatutako lurri lotutako lerro bat dago. Eta hala, diruz lagunduko dira kutsatutako lurra ikertzeko eta berreskuratzeko ekintzak, bai kutsagarriak izan daitezkeen industria-jarduerak eduki dituzten lurzoru egiten direnak, bai eta hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretua indarrean sartu aurretik beren jardueran bertan behera utzi zituzten kontrolatu gabeko antzinako hondakin biltegietan egiten direnak ere, betiere lurra berreskuratzeko xedea lurraldearen kalitatea kokalekuak azkenean izango duen erabileraekin batez beste ragarria izatea bada, eta aurreikusitako azken erabilera hori nagusiki soziala bada. Laguntza soil-soilik ematen da ekintza horiek toki-titulartasuneko lurretan egiten badira, betiere beren bertan behartuta ez badago diruz lagunduko den jardueraren lege aplikagarriaren arabera, edo behartuta ezin badu jardueraren egin konkurtso-egoeran dagoelako. Lurzoru publikoak berreskuratzeko ekintzak etxebizitzak eraikitzeke edo lurzoru industrial bihurtzeko egiten badira, ez da diru-laguntzarik jasotzen.

Hurrengo taulan, azken hiru urteetan kutsatutako lurraldeen lerroan diru-laguntza jaso duten proiektuei buruzko informazioa jasotzen da:

Urtea	Diruz lagundutako proiektuak	Diru-laguntzen zenbatekoa guztira	m ² berreskuratutak	m ² ikertutak
2010	17	1.341.562 €.	24.338	446.536,38
2011	10	562.878,80 €.	57.471	493.759
2012	19	623.942,77	21.600	158.400

Aurrekotik, diruz lagundutako jarduera guztien xede a zein den ondorioztatzen da: substantzia kutsatzaileek pertsonen eta ekosistemen osasunean izan dezaketen eragina gutxitzea.

Taulan, 2013ko ekitaldian aurtengo deialdirako dago en aurrekontu-egitura jasotzen da, bai eta zenbait urtetan deialdira bideratuko diren zenb atekoak ere.

ATALA; AZPIPRO; ZERBITZUA; ZENTROA; AZPIKON; PARTIDA	Izena	2013	2014	2015	Guztira
09.44210.22.0100.722.01.202	Udalentzako diru-laguntzak Lurzoru kutsatuen lerroa.	90.000	90.000	420.000	600.000

8.- APLIKAZIOAK BESTE HERRI-ADMINISTRAZIO BATZUETARAKO IZAN DEZAKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA: EAE-KO FORU ADMINISTRAZIOAK, EAE-KO TOKI ADMINISTRAZIOAK, ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRA ETA BESTE ADMINISTRAZIO BATZUK

EAEko Administrazio Orokorra ez diren administrazio publikoentzat izan dezakeen ondorio ekonomikoak lotura izango du administrazio horiek ingurumen-organoak lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzearen alorrean aur rez erabakitzeke eskatzen duten jardueren erantzule izatearekin; hau da, kostua, ad ministrazioentzat, partikularrentzako bera izango da.

Nolanahi ere, Sailak toki-erakundeez eta titulartas un publikoko lurrez den bezainbatean dauzkan diru-laguntzen lerroaz lehen azaldutakoa az pimarratu behar da.

9.- APLIKAZIOAK PARTIKULARREN ARTEAN ETA EKONOMIA OROKORREAN IZAN DEZAKEEN KOSTUAREN EBALUAZIOA:

9.1.- Aurreproiektua indarrean jartzeak eragindako eragile nagusiak

Arauaren ondoriozko eragin ekonomikoaren banaketa e baluatzeko, komenigarritzat jo da hark eragin diezaiekeenak soil-soilik hiru multzo handit an sartzea.

a) Lurra berreskuratzer a behartutakoak

Talde honetan, kutsagarriak izan daitezkeen jarduer en eta instalazioen titularrak sartzen dira, eta haiek, kasuan kasuan, lurraren kutsadurar en kausatzaile posibleak izango lirateke. Eragindakoen multzo horretan bertan kutsatutako lur ren edukitzaileak eta haien jabeak ere sartzen dira. Azken horiek kutsaduraren kausatzaile aren ordezk o behartuak dira, eta solidarioak dira elkarren artean, lurreko kutsadura kentzeko lanez den bezainbatean.

Gainera, hondakinei eta kutsatutako lurrei buruzko 22/2011 Legeak berreskuratze-lanak egitera behartutakoen artean ezarritako hierarkia b erriaren arabera, azpimarratu behar da beste inor baino lehenago kutsaduraren kausatzaileak egongo direla behartuta lurra erremediatzera. Modu subsidiarioan, lurraren jabeek eta edukitzaileek egin behar dute kutsatutako lurra erremediatzeko lana⁶.

Era berean, aurreproiektuak beste subjektu batzuk ere aipatzen ditu, eta haiek, azken batean, lurra berreskuratzer a behartuta daudenen ma ila horretan sar daitezke. Adibidez, lurra kutsa dezakeen jarduera edo instalazio bat iz an duen baina orain ezertarako erabiltzen

⁶ Hondakinei eta kutsatutako lurrei buruzko 22/2011 L egearen 36.2 artikuluzatiaren arabera, emakidaraubidean dauden ondasunen kasuetan, kutsaduraren kausatzaileak edo kausatzaileek erantzun ezean, kutsatutako lurren edukitzaileak eta jabeak erantzun dute haien ordezk (modu subsidiarioan) eta ordena horretan.

ez den kokagune batean lurra mugitzen dituztenak h alakotzat hartuko dira, aurreproiektuaren 24.b letraren arabera.

b) EAEko administrazioak

Funtsean, EAEko ingurumen-organoak jasaten ditu arau aplikatzearen ondorio ekonomiko nagusiak, bere gain hartzen baitu luraren kalitate arekin zerikusia duten administrazio-prozedurak izapidetzeko ardura.

c) Lurzoruak ikertzeko eta berreskuratzeko baimendutako entitateak

Aurreproiektuan, baimendutako erakundeek jarraitzen dute izaten luraren kalitateari buruzko ikerketak eta txostenak egitearen arduradunak, eta, era berean, haien ardura da lurra berreskuratzeko planak eta gelditutako luraren kalitateari buruzko txostenak egin eta diseinatzea.

Era berean, baimendutako erakundeek beren gain hartu beharko dute lurra ikertzeko eta berreskuratzeko lanen garapenerako baimenaren ondoriozko kostu ekonomikoa.

AURREPROIEKTUAK ERAGINDAKO ERAGILEAK ETA HAIEN BETE BEHAR BERRIAK		
LURRA KUTSATU DUTENAK, JABEAK ETA KUTSATUTAKO LURRAREN EDUKITZAILEAK	ADMINISTRAZIO PUBLIKOA	Erakunde egiaztatuak.
1. Luraren kalitateari buruzko txostenak aldi behin (5 urte).	1. Luraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedurak izapidetzea (lurra erabiltzeko egokia delako adierazpen- eta salbuespen-prozedura barne).	1. Tasak ordaintzea baimentzeagatik eta ondoriozko egokitze teknikoagatik.
2. Lurra egokia delako adierazpen-prozedurara biltzea.		
3. Luraren kalitatearen adierazpenetik salbuesteko prozedurara biltzea.		
4. Tasak ordaintzea Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzearen alorrean zerbitzuak emateagatik.		
5. Finantza-bermeak ematea lurra berreskuratzeko neurriak bermatzeko.		
6. Lurra berreskuratzeko lanek, kalkuluen arabera, guztira izandako kostuaren % 10erainoko isun hertsatzaileak ordaintzea.		

3. taula. Aurreproiektuak eragindako eragileak eta haien bete behar berriak.

9.2. Aurreproiektua aplikatzearen ondoriozko eragin ekonomikoaren ebaluazioa

Kalkuluak egiteko, aurreproiektuan araututako berri tasunak indarrean jartzeak izan dezakeen eragin ekonomikoaren zenbaterainokoa kontuan hartzen da.

A) Betebehar ekonomikoen identifikazioa

Memoria honetako 2.2 atalean jasotako zerrendaren arabera, honako hauek dira ukitutako arteen eragin ekonomikoa izan dezaketen berritasuna k:

- Kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratua egiteko araudiari lotutako jarduerak aldi berean (5 urtean behin, gutxienez) egoerari buruzko txostenak egitea.
- Lurra erabiltzeko egokia delako adierazpenerako prozeduraren sarrera.
- Salbuespen-kasuen sarrera luraren kalitatearen gaineko adierazpenerako prozeduretan.
- Berme ekonomikoak (abalak, fidantzak) ezartzeko aukera, luraren kalitate-adierazpenean ezarritako neurriak bete direla ziurtatzeko. Ingurumen-eginbideak bete berme handiagoa izango da, bai eta aparteko kostu bat ere esku hartzen duten eragileetakoren batentzat. Pentsatu da berritasun honek eragin ekonomikoa izan dezake ere, hura ezin dela kuantifikatu.
- Gehienez ere berreskuratzeko neurri guztien kostu kalkulatuaren % 10eko zenbatekoko isun hertsatzaileak ezartzeko aukera. Pentsatu da berritasun honek eragin ekonomikoa izan dezake ere, hura ezin dela kuantifikatu.
- Tasak sartzeko EAEko Administrazio Orokorra zerbitzuak emateagatik.

B) Garrantzi ekonomikoa duten Aurreproiektuko betebeharrak ekonomikoaren eragin ekonomikoa

Ondoren, hiru betebeharrak buruzko kuantifikazioa egiteko daitezkeenez, haien eragin ekonomikoa ebaluatzen da.

Luraren egoerari buruzko aldi bereko txostenak egitea

Lehenago esana dugu betebeharrak edo eginbide berriak industria-emisioei buruzko azaroaren 24ko 2010/75/EB Direktibaren 16.2 artikuluko zatia egiteko ondorioa dela, eta, horregatik, ez litzateke hartu behar aurreproiektutik ondorioztatutako betebeharrak moduan. Hala ere, daukan ondorioen ebaluazioa jasotzen da ondoren.

Aurreproiektuaren 17.2 artikuluko zatian xedatutako araberako, luraren egoerari buruzko lehenago aurkeztutako txostenak eguneratzeko eskatu ahal izango die EAEko ingurumen-organok kutsagarriak izan daitezkeen jardueren edo instalazioen titularrei. Era berean, kutsaduraren kontrol eta prebentzio bateratuari buruzko araudia (hau da, 16/2002 Legea, uztailearen 1eko, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa) bete behar duten instalazio guztiek aldi bereko txosten horiek bidali beharko dituzte; gutxienez bost urtean behin.

Gure kalkulak oinarri hartuta eta neurrizko zenbat espen bat eginda,⁷ pentsatzen da kutsagarriak izan daitezkeen jardueren artean 2005ean aurreikusitako araberako egoerari buruzko txostenak egiteko egokitzen zitzaizkien 5.447 jardueretatik, % 10ek bost urtean behin igorri beharko dituela aldi bereko txosten horiek. Ehuneko horrek barruan hartzen ditu bai gehien kutsa dezaketen jarduerak (kutsaduraren prebentzio eta kontrol bateratuari buruzko araudia bete behar dutenak; 274, gaur egun), bai EAEko ingurumen-organok kutsagarriak izan daitezkeen beste jarduerak batzuen egoerari buruzko txostenak eguneratzeko eskatzeko aukera.

Aurrekotik ondorioztatzen da kutsagarriak izan daitezkeen 545 kokagunek igorri behar dutela aldi bereko txostenak.

Euskadin, luraren egoerari buruzko txostenak egiteko aplikagarriak diren gidak araberako,⁸ lurra kutsa dezaketen kokaleku bateko prozesuak aipatu behar dituzten aldi bereko txostenak.

⁷ Guk egindako kalkulak, ingurumen-lankidetzarako erakundearen sektoreko profesionalak igorritako orientazioak oinarri hartuta.

⁸ Ikus: "Luraren egoerari buruzko atariko txostenak egiteko gida", lurrasulo, 1. argitalpena 2007.

Aldian behingo txosten horiek egiteari lotutako kostu unitarioa kokagune eta txosten bakoitzeko 1.000 euro dela baloratu da. Kontuan hartu behar da kokaleku bakoitzak gutxi gorabehera aldi behingo sei txosten egin beharko dituela 2013 eta 2040 artean: txosten bat bost urtean behin⁹.

Kostu hori kalkulatzeko, kontuan hartu behar da bere garaian EAEko ingurumen-organismoari emandako informazioa eguneratzea dela aldi behingo txosten horien helburua; horregatik, hasiera batean, leku bakoitzak aurretiazko datu batzuk izango ditu oinarri gisa erabiltzeko.

Txosten bakoitzeko 1.000 euroko kostua aplikatzen bazaie kalkuluen arabera eraginda dauden leku guztiei (dena, 545), lehen aipatutako europar direktibaren ondoriozko berritasun honi lotutako eragin ekonomikoa 3.270.000 €-koa da 2013 eta 2040 arteko aldirako.

Hortaz, aurrekoak esan nahi du urteko kostua, gutxi gorabehera, 121.111 € izango dela 2013 eta 2040 artean.

Lurzoruaren erabilera-egokitasunaren adierazpen-prozedura.

Aurreproiektuaren 25., 36. eta 37. artikuluetan lurraren kalitatearen prozedura sinplifikatu bat arautzen da. Prozedura horri esker, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren titularrek, industria-lur batean kokatutako kutsatze-ahalmen ertaineko kokapen bat jarri, handitu edo itxi nahi badute, luraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozedura laburtzeko aukera izango dute.

Prozedura sinplifikatu horretara biltzeko, erakunde baimendu batek egoerari buruz egindako txosten bat igorri beharko du instalazioaren titularrak¹⁰.

Aurreko manu horiek oinarri hartuta, honako hau zehaztu da:

Pentsatu da *a priori* arrisku-maila txikiagoa duten kokalekuei legokieke elurra erabiltzeko egokia delako adierazpen-prozedura (hau da, soil-soilik arrisku-maila ertaina lotuta daukaten kokalekuei, bai lurpeko urei dagokienez, bai pertsonen osasunari dagokienez, betiere luraren erabileraren arabera).

Kalkuluen arabera, luraren kalitaterako hainbat prozedura daude oraindik izapidetu gabe 2013an; kokalekuak, guztira, 7.409 dira. Eta hala, kokaleku horien % 40k, gutxi gorabehera, babesa izan lezakete elurra erabiltzeko egokia delako adierazpenerako prozeduran. % 40 hori urentzat eta pertsonentzat arrisku-maila ertaina duten kokaleku-motei dagokie. Aurrekotik ondorioztatzen da gutxi gorabehera 2.964 kokalekuak izan lezaketela babesa prozedura horretan.

Eta hala, elurra kutsa dezaketen jarduerak dituzten kokalekuen % 40 miaketazko azterketak egiteko salbuespena geratuko lirateke¹¹, egokitasun-prozedurari lotuta, eta inola ere baztertu gabe aurreproiektuaren 26. artikuluan aurreikusitako salbuespena biltzeko aukera.

Lehenago azaldu bezala, ingurumen-lankidetzarako erakunde batek egoeraz egindako txosten bat aurkeztetik harago, edukia eta norainokoa erregulatu bidez zehaztuta izango litzatekeena, luraren erabileraren egokitasun-adierazpenerako prozedura aurreztea da berez.

⁹ Hala, luraren egoerari buruzko aldi behingo txostenak eguneratzearen kostua, gutxi gorabehera, 160 € da eguneratze bakoitzeko.

¹⁰ Kostu hori partida hauetan sartuta balego bezala hartzen da: (i) egoerari buruzko txostena egitea, 1/2005 Legearen eragin ekonomikoa eguneratuta; (ii) aurreproiektuaren arabera nahitaezkoak diren egoerari buruzko aldi behingo txostenak egitea.

¹¹ Soil-soilik, luraren egokitasunaren adierazpen-prozedurari lotzearen ondorioz, miaketazko azterketaren kostuak egikaritzetik salbuesten dira, bai baitirudi, azterketa xehatua egitea beharrezkoa balitz, jarduera hori, aurreproiektuaren arabera, ezingo litzatekeela bildu prozedura sinplifikatu horretara.

Aurreztea, lurra kutsa dezaketen kokaguneen titular rek, haiek prozedura honetara bildu ahal badira, ez dutelako egin beharko lurraren miaketazko azterketarik.

Lurraren erabilerarako egokitasun-prozedura aplikatzearen eragin ekonomikoa aurrezte moduan zehaztuta dago, miaketazko azterketak egitearen ondoriozko eragin ekonomiko eguneratuan egindako aurrezte moduan, hain zuzen.

Hala, kalkulatu da 2013an lurraren kalitate-prozedura oraindik izapidetu gabe dituzten inbentariatutako kokaguneen % 40k miaketazko azterketak eragindako kostua aurreztuko lukeela; hau da, 2.964 kokagunek.

Kalkuluen arabera, miaketazko azterketei lotutako kostu eguneratua 182.952.382 € da; horregatik, kokaguneen % 40an azterketa horiek ez egiteari lotuta aurreztutakoa 73.180.952 € izango litzateke 2013 eta 2040 artean.

Hala ere, kontuan hartu behar da miaketazko azterketak egin ez den kokalekuan, baimendutako erakunde bateko egoerari buruzko txosten bat egin beharko duela haren ordez. Atariko txosten bakoitzaren kostua 1.000 € dela emanez gero, eta txosten kopurua 2.964 bada (7.409ren % 40), jarduketarako honetarako kalkulatuakoa kostu osoa 2.964.000 € litzateke.

Horrenbestez, lurraren egokitasun-prozedura ezartzearen ondoriozko aurrezki garbia 70.216.952 € izango litzateke 2013 eta 2040 bitartean.

Eta hala, urtean 2.600.628 € aurreztuko lirateke.

Salbuespen-kasuen sarrera lurraren kalitate-arloko prozeduretan.

Lurraren kalitate-arloko prozeduretatik salbuesteko kasuak arautzen ditu 26. artikulua, jarduketarako espezifikoen eta, ingurumenaren ikuspuntutik, munta gutxikoen kasuan.

Hauek dira jarduerak horiek:

- Industria-erabilera baten garapena, lurra kutsa dezakeen jardueraren ezarpena, handitzea edo itxiera besterik ez gertatuta, lurra izan duen jarduerak kutsatzeko ahalmen gutxiko jardueraren moduan sailkatuta dagoena;
- Kutsa dezakeen jarduerak bat duen edo izan duen kokagune baten zati bat okupatzea, zerbitzuak ezartzeko lurrak mugitzeko;
- Kutsa dezakeen jarduerak bat handitzea partzelaren mugen barruan;
- Lurra kutsa dezakeen jarduerak bat partzialki uztea;
- Lurraren kalitatearen gaineko aurretiazko adierazpen-ebazpena dagoenean, kutsagarriak izan daitezkeen jardueren ezarpen-, handitze- edo erabateko uztekasuan.

Adierazitako salbuespen-kasuak eta gisakoak arauaren sartzeari aurrezpena da berez.

Aurreztea, lurra kutsa dezaketen kokaguneen titular rek, haiek prozedura honetara bildu ahal badira, ez dutelako egin beharko lurraren miaketazko azterketarik.

Lurraren erabilerarako egokitasun-prozedura aplikatzearen eragin ekonomikoa aurrezte moduan zehaztuta dago, miaketazko azterketak egitearen ondoriozko eragin ekonomiko eguneratuan egindako aurrezte moduan, hain zuzen.

Hala, kalkulatu da 2013an lurraren kalitate-prozedura oraindik izapidetu gabe dituzten inbentariatutako kokaguneen % 20k miaketazko azterketak eragindako kostua aurreztuko lukeela; hau da, 1.481 kokagunek.

Kalkuluen arabera, miaketazko azterketei lotutako kostu eguneratua 182.952.382 € da; horregatik, kokaguneen % 20an azterketa horiek ez egiteari lotuta aurreztutakoa 36.590.476 € izango litzateke 2013 eta 2040 artean.

Horrenbestez, salbuespen-kasuak ezartzearen ondoriozko aurrezki garbia 36.590.476 € izango litzateke 2013 eta 2040 bitartean.

Eta hala, urtean 1.355.202 € aurreztuko lirateke.

Tasak sartzeari zerbitzuak emateagatik

Kostu hori memoria honetako 4. atalean ebaluatu da.

10.- ONARTUA IZAN ONDOREN, LEGEAREN APLIKAZIOAK ENPLEGUAN, ERRENTAN ETA PRODUKZIOAN IZANGO DUEN ERAGIN EKONOMIKOA

Aurreko orrietan adierazi bezala, lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko lege-aurreproiektuak otsailaren 4ko 1/2005 Legea aldatzean du, bi parametrotan oinarrituta: alde batetik, administrazioaren esku-hartzea murriztea, sinplifikazio administratiboa eta, beharrezkoa ez denean, tutoretzarik ez izatearen printzipioa; eta, bestetik, ingurumen-estandarrik hertsiki mantentzea, aldaketak estandarrik inola ere urritu gabe.

Alde horretatik, bi dira arauak berriak egiten diren berrikuntza nagusiak. Alde batetik, lurzorua kutsa dezaketen jardueren sailkapen bat ezartzen da. Kutsatzeko ahalmenaren arabera egin da sailkapena, eta horren bitartez betebeharrik zehazten dira, arauak xedatutakoaren ondorioetarako: betebehar desberdina eta ahalmen horri hobeto egokituak. Beste alde batetik, lurzorua kutsadura ekidin eta zuzentzearen arloko esku-hartze administratiboa bizkortzeko, lurzorua kalitatearen arloan ere prozedura bikoitza ezarri da: lurzorua kalitate-adierazpenerako prozedura, lurzorua proposatutako erabilerarako egokia den baloratzea xede duena; eta lurzorua erabiltzeko egokia dela adierazteko prozedura, zeina prozedura soilagoa baita, eta lurzorua soil-soilik industria-erabilerarako egokia den aztertzea xede duena.

Baiezta daiteke arauaren helburu nagusietako batek, lurra kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzearen esparruan administrazioaren esku-hartzea bizkortu eta sinplifikatu nahi duenak, lehiakortasunean eragin onuragarria izango duela, industria-sektorean bezala zerbitzuen sektorean ere.

Aldeko eragin ekonomiko hori, aurretiaz neurtzen zaile izan arren, adierazitako zentzuan sartutako neurrien ondorioa izango da, enpresek inbertsio-proiektuak gauzatzea sustatuko baitute.

Arrazoi berengatik, enpleguan ere eragin onuragarria izan duela pentsatzen da.

11.- ONDORIOAK

Lege-proiektuaren eragin ekonomikoaren azterketatik, zenbait ondorio atera daitezke. Beste kontu batzuk baztertu gabe, ondorio nagusiak hauek dira:

- I. **EAEk luraren kutsadura-arloan izandako legeriaren indarraldiko zortzi urteetan metatutako esperientzia ikusita, komeni da arau horien alderdi batzuk eguneratzea.**
- II. **EAEko ingurumen-arloko administrazioak eta eragile pribatuak, 1/2005 legea indarrean zortzi urte egon ondoren, beharrezko esperientzia dute, kokaleku kutsatuen kudeaketak dakartzan erronka berriei aurre egiteko.**
- III. **Luraren kalitatearen ingurumen-kontrola egiteko prozedura berriek (nagusiki luraren erabileraren egokitasun-adierazpena eta luraren kalitatearen adierazpenetik salbuesteko prozedura) aukera emango dute kutsatutako luraren arloan desiragarria dezan administrazioaren esku-hartzea murriztea lortzeko eta ingurumen-kalitatean estandar zorrotz batzuk izateko.**

- IV. Bestalde, lurraren kutsaduraren prebentzio-esparruan zerbitzuak emateagatik tasak ezartzea beharrezko neurria da, Administrazioak zeregin horretara bideratutako baliabideetan egiten duen gastua arintzeko. **Hala ere, esan daiteke txikia dela arauak tasengatik xedatutako zenbatekoa, eta, beraz, eragin ekonomiko txikia du eragile pribatuen artean.**
- V. Emaidza ekonomikoek, guztira, aditzera ematen dute aurreproiektua indarrean jartzeak aurrezteak dakarrela, eta aurrezpen hori, kalkuluen arabera, hau izango da: 106.807.428 €, 2013 eta 2040 artean, zerikusia duten eragileentzat. Hau da: **urtean 3.955.830 € aurreztuko lirateke.**
- VI. Diruan eta denboran aurreztutakoaren ondorioz, aurreproiektua aplikatzeak, kalkuluen arabera, **eragin onuragarria izango du lehiakortasunean,** industria-sektoreari eta zerbitzu-sektoreari dagokienez.

Vitoria-Gasteiz

Sin.: **Alejandra Iturrioz Unzueta**
Ingurumen Administrazioaren zuzendaria



ERANSKINA.

Langile-beharrak 1/2005 Legea aplikatzeko, 2004an aurkeztutako Aurreproiektuaren Memoria Ekonomikoaren arabera

“Euskal Autonomia Erkidegoa, autonomia-erkidegoen artean, aitzindaria eta aurreratuenetako bat izan da lurraldearen babeste-alorrean, eta 90eko urteen hasieran lan handia egin zuen kutsatutako lurraldeak bilatzen eta identifikatzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurra Kutsa Dezaketan Jardueren Kokalekuen Inbentarioaren bidez.

Egindako inbentarioa garatu egin da, eta, gaur egun, 8.195 kokaleku daude inbentariatuta, kutsagarriak izan daitezkeen jarduera gisa identifikatutakoak 11.855 izanik.

Lurra ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legeak tresna eta betebeharrak hauek dauzka xedatuta gizarite-eragileentzat:

- Egoerari buruzko atariko txostenak
- Aldian behingo txostenak.
- Miaketazko azterketak.
- Azterketa xehatuak
- Lurralde berreskuratzea / oneratzeko.
- Gelditutako lurralde buruzko txostena
- Kontrol- eta jarraipen-neurriak.

A) BAIMENDUTAKO ERAKUNDEEK ETA LURRA KUTSA DEZAKETAN JARDUEREN TITULARREK EGINDAKO JARDUEREN KONTROLA

Autonomia Erkidegoko ingurumen-organismoak legean aipatzen diren lurraldearen kalitatearen ikerketak egiteko eta berreskuratze-neurriak taxutu eta beteazteko baimena emango die eskatzen duten erakundeei, eta erregelamendu bidez zehaztuko da zein diren baimen hori lortzeko bete behar diren baldintzak eta prozedurak.

Ingurumen-organismoak kontrolatu beharko dituzte baimendutako erakundeei egindako jarduerak.

Era berean, ingurumen-organismoak egoerari buruzko txostenen berrikuspena eta kontrola egingo dituzte, eta, prebentzio-, defentsa- eta kontrol- eta jarraipen-neurriak zehazteaz gain, haien jarraipena egingo du.

Horren barruan, egin beharreko lanak, funtsean, bi motatakoak dira. Alde batetik, kabinete-lanak daude: berrikustea behartuek ingurumen-organismoari bidaliko dokumentazioa, zeina lurraldearen kalitatea aztertze prozesuan dauden faseei baitagokio, eta kasuan kasuko irizpenak ematea. Bestetik, “in situ” ikuskatze-lanak.

1.- Egoerari buruzko txostenak.

Egoerari buruzko txostenei dagokienez, “egoerari buruzko atariko txostenak” eta “geroagoko aldi behingo txostenak” bereizi dira, munta desberdineko txostenak direla ulertuta.

1.1.- Egoerari buruzko atariko txostenak.

“Egoerari buruzko atariko txostenei” dagokienez, 5.477 dira kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak gaur egun dituzten kokalekuei dagozkien berrikusi beharreko txostenak. Txosten horiek, oinarritzeko araudian xedatutakoaren arabera, 2005eko, 2006ko eta 2007ko ekitaldietan berrikusi behar dira, 2007ko otsailaren 10ean amaituko delako haiek aurkezteko

epea. Hortaz, lehen urtean 1.826 berrikusiko dira; bigarren urtean, 1.826; eta hirugarrenean, 1.826. Era berean, kalkuluen arabera, “egoerari buruzko atariko txostena” egitea dagokien jardueren % 25 “in situ” ikuskatuko da.

Horiek horrela, txostenetako bakoitza berrikusteko denbora pertsona tekniko kualifikatu baten bi lanordu izango direla pentsatu da, bai eta “in situ” ikuskapenak egingo direla ere, eta haietan, batez beste, 4 lanordu beharko dira, txostena egin behar duten jardueren % 25ean.

1.2.- Geroagoko aldiari behingo txostenak

Berrikusi beharreko “geroagoko aldiari behingo txostenak”, guztira, urtean zenbat igortzen diren kontuan hartuta, hauek izango dira:

- 1.826 Legearen indarraldiko bigarren urtean
- 3.651 Legearen indarraldiko hirugarren urtean
- 5.447 Legearen indarraldiko hirugarren urtetik aurrera

Txosten horiek berrikusteko denbora pertsona tekniko kualifikatu baten lanordu bat izango dela kalkulatu da, haien berrikuspena “atariko txostenarena” baino errazagoa dela uste baita. Era berean, ikuskatu beharreko kokalekuen kopurua kasuen % 10era murriztuko dela kalkulatu da, eta haietan, batez beste, lau lanordu beharko dira.

2.- Azterketa-txostenak

2.1.- Miaketazko azterketa-txostenak

Horizonte zabalean, guztira, 8.149 miaketazko azterketa egin beharko dira; kopuru hori lurra kutsa dezaketen jarduerak dituztelako edo izan dituztelako inbentarioan sartutako kokalekuena da. Pentsatu da haiek eta, beraz, egindako azterketak jasoko dituzten txostenen berrikuspena mailaz maila egingo direla 2005etik 2040ra bitarteko urteetan. Horrek esan nahi du urtero, guztira, 232 miaketazko azterketa-txosten egingo direla. Gutxienez jardueren % 25 “in situ” ikuskatuko direla onartu da.

Horiek horrela, kalkulatuak diren arabera, pertsona tekniko kualifikatu baten zortzi lanordu beharko dira txostenetako bakoitza berrikusteko, eta, jardueraren “in situ” ikuskaritzarako, pertsona tekniko kualifikatu baten lau ordu.

2.2.- Azterketa xehatuko txostenak

Azterketa xehatuei dagokienez, pentsatu da miaketazko azterketa egiten den kokalekuen % 28an azterketa xehatuari ekin beharko zaiola. Horrek esan nahi du urtero, guztira, azterketa xehatuko 70 txosten berrikusiko direla. Era berean, beharrezkotzat jotzen da kokaleku guztiak ikuskatzea.

Kalkuluen arabera, pertsona tekniko kualifikatu baten 12 lanordu beharko dira azterketa xehatuko txosten bakoitza berrikusteko, eta, azterketa xehatu bakoitzaren berrikuspenera lotuta, kokaleku baten “in situ” ikuskaritza egiteko, pertsona tekniko kualifikatu baten zortzi ordu.

3.- Berreskuratze-proiektuen eta gelditutako lurrari buruzko txostenen berrikusketa

Berreskuratze-proiektuen neurrien beharra izango duten kokalekuen kopurua kalkulatzeko, lege-aurreproiektuekin batera egin zen memoria ekonomikoaren arabera, pentsatu da hondakindegien % 80 berreskuratuko dela, bai eta, hondakindegia izan gabe, azterketa xehatu egin den kokalekuen % 50 ere. Horretan oinarrituta, guztira, 1.539 kokaleku oneratu beharko dira, eta jarduketara horiek 2005 eta 2040 artean modu homogeenan banatuko direla aurreikusten da. Horrenbestez, urtero 44 jarduketara egin eta, beraz, kontrolatu beharko dira. Berreskuratze-lanetan, berreskuratze-prozesuan dauden kokaleku guztiak ikuskatuko direla

pentsatu da. Urtero, gainbegiratu beharreko gainerako lurrari buruzko txostenen kopurua berreskuratu beharreko kokalekuen kopuru bera izango da; hau da, 44.

Berreskuratu beharreko kokalekuetako bakoitzari dagokion dokumentazioa berrikusteko, pertsona tekniko kualifikatu baten 24 lanordu beharko dira, eta berreskuratu bitartean kokalekuak “in situ” ikuskatzeko, berriz, 24 ordu. Gainerako lurrari buruzko txosten bakoitza berrikusteko eta kontrolatzeko, lau lanordu eta lau ikuskaritza-ordu beharko dira.

4.- Prebentzio-, defentsa- eta kontrol- eta jarraipen-neurrien berrikuspena

Urtero berrikusi beharreko kontrol- eta jarraipen-neurriei buruzko txostenei dagokienez, kontuan hartu behar da ezen, berreskuratutako kokaleku guztiek lurpeko uren kontrolak egin beharko dituztenez sei hilean behin, urtero berrikusi beharreko txostenen kopurua berreskuratze-jarduerak egin dituzten jardueren kopurua bider bi eginda lortzen den emaitza izango dela. Horrenbestez, berrikusi beharreko txostenen kopurua urtetik urtera handituko da, harik eta kutsatutako lur guztiak berreskuratu arte. Kontrol- eta jarraipen-neurriak hartu behar dituzten kokaleku guztiak “in situ” ikuskatuko dira bi urtean behin; hau da, 4 kontroletik bat ikuskatu egingo da bi orduz.

Informazioaren administrazio-berrikuspena egiteko (nagusiki, buletin analitikoak), pertsona tekniko kualifikatu baten 0,5 ordu beharko dira.

Prebentzio- eta defentsa-neurriak lurra kutsa dezaketen jarduera guztietan aplikatu behar dira. Urtero egin beharreko prebentzio- eta defentsa-neurriei buruzko txosten espezifikoan kopurua, guztira, “miaketazko azterketei buruzko txostenena” bera izango da; hau da, 232.

Kalkuluen arabera, prebentzio- eta defentsa-neurriei buruzko txostenen % 100 “in situ” ikuskatuko dira dagozkien kokalekuetan.

Pentsatzen da pertsona tekniko kualifikatu baten la ordu bat beharko dela txosten bakoitza berrikusteko, eta lau ordu erabiliko direla kokalekuetako bakoitzean hartutako prebentzio- eta defentsa-neurriak “in situ” ikuskatzeko.

Azaldutakoa kontuan hartuta, kabinete- eta ikuskaritza-lanetarako behar diren langile tekniko kualifikatuen beharrak ondoko taulan laburtzen dira:

LANGILE TEKNIKO KUALIFIKATUAK				
	2005	2006	2007	2008 eta ondorengoak
1. Egoerari buruzko txostenak				
Atariko txostenak	3,25	3,25	3,25	
Aldian behingo txostenak	-	1,6	2,75	4,1
2. Ikerketa-txostenak				
Miaketazko ikerketa	1,3	1,3	1,3	1,3
Ikerketa xehatua	0,88	0,88	0,88	0,88
3. Berreskuratze-proiektuak eta gelditutako lurrari buruzko txostenak	1,55	1,55	1,55	2,55
4.- Prebentzio-, defentsa- eta kontrol- eta jarraipen-neurriak	1,23	1,23	1,23	2,23
Langile teknikoak guztira	8,21	9,81	9,81	11,06

B) LURRA KUTSA DEZAKETEN JARDUERAK EDO INSTALAZIOAK DITUZTEN LURREN INBENTARIOA ETA LURRAREN KALITATEAREN ADMINISTRAZIO ERREGISTROA. LEGEAREN ZENBAIT ATALEN ERREGELAMENDUZKO GARAPENA ETA ARAUAREN KONTROL JURIDIKOA

33. artikulua xedatutakoaren arabera, ingurumen-organoak proposatuta, lurra kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurren inbentarioa onartuko du Autonomia Erkidegoko Gobernuak, eta inbentario hori aldi behin eguneratuko da.

Bestalde, 35. artikulua lurraren kalitatearen administrazio-erregistroa sortzen du, lurraren babes-arloko informaziorako eskubidea eta segurtasun juridikoa bermatzeko; erregistro horretan, erregistratutako partzela bakoitzari dagozkion datuak agertuko dira.

Bi artikulua horiei lotuta, zenbait jarduketa ondoriozta daitezke, inbentarioa eta erregistroa mantentzeko, bata zein bestea lurraren kalitatearen gaineko adierazpen-prozeduran eta, beraz, kutsatutako edo eraldatutako lurra oneratzeko erabakitzen diren jarduketetara egokituz.

Erregelamenduzko garapenari dagokionez, arauak zenbait artikulutan esaten du erregelamenduzko garapena egin beharko dela legea onartu ondoren, eta horrek eragina izango du zenbait arlotan:

- 6. art. Lurzoruaren kalitateari buruzko aldizkako txostenak.
- 12. art. Lurzoruak zer kalitate duen jakiteko eta kontrolatzeko tresnak.
- 36. art. Lurzoruak ikertzeko eta berreskuratze baimendutako entitateak.
- 38. art. Lurzoru kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko funtsa.

Horiek horrela, Ingurumen eta Lurraldearen Antolaketa Sail honek guztiz lehenasunezko zat jotzen du ahokulari juridiko bat ere izatea, ingurumen-organoak lurraren kutsadura-esparruan indarrean dagoen araudia betetzeko izapidetutako espedienteetan langile tekniko kualifikatuek gauzatutako jarduketak berrikus ditzan.

Azkenik, esan behar da lan tekniko eta juridiko horiek guztiek inplizituki administrazio-ahalegin bat egitea dakartela berekin, dokumentazioa antolatu, artxibatu eta kontrolatzeko.

Alde horretatik, aurreko atalean egindako ebaluazio zehatza dela eta, Ingurumen eta Lurraldearen Antolaketa Sailak 13 lanpostu berri hauek eskatu ditu eskumena duten organoetan: 1 aholkulari juridiko; 4 goi-mailako teknikari; 4 erdi-mailako teknikari; 2 LH; 1 administrari; 1 administrari laguntzaile”.